


## BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO ATALAK

Gure enpresako banaketa eta komunikazio atalak landuko ditugu ondorengo hausnarketaren bidez. Hasteko, McBaxerri, gure enpresaren, komunikazio bide nagusiak landuko ditugu, eta ondoren, banaketa bideetan zentratuko gara.

Lehenengo zatian, enpresaren eta bezeroen arteko harremanak sakonki landu eta gure kanalak dituen funtzioak aztertuko ditugu. Kanalek hainbat funtzio dituzte, bost zehazki:

Lehena, bezeroei enpresaren produktu eta zerbitzuak aurkeztea da. Nahiz eta oraindik gure jatetxea martxan ez egon, propaganda bidaltzen hasi gara martxan dagoenean egingo dugun bezalaxe. Gure enpresaren kasuan, Internet bidez, produktuak aurkezten ditugu eta horretaz gain, propaganda etxeetara bidaltzen dugu. Gainera, gure eraikina, hau da, baserria, oso berezia eta handia denez, jendea erakartzen du.

Horretaz gain, bezeroek produktu eta zerbitzu zehatzak erostea ahalbidetzea da gure beste funtzioetako bat. Guk gure baserriko baratzean landatutako letxuga, tomate, patata, kalabaza, piper, babarrun, azenario, tipula, baratxuri, sagar eta garbantzen bidez lortzen ditugu gure produktuak.



Hilabete jatetxeari buruzko informazioa zabaltzen ibili ondoren, gure segmentuek Interneten dagoen informazioa kaleetako paretetan edo etxeetako postontzietan jasotako propaganda edo kartelak baino nahiago dutela ikusi dugu. Oraingoz, Instagram kontua eta web-gunea dira guk informazioa bezeroei helarazteko erabiltzen ditugun kanalak. Web- gunean, aurrez zein aukera dauden jakingo dute eta horrela beraien erabakia hartzeko denbora izango dute. Honez gain, produktuek zerez eginak dauden ikus dezakete, hau da, produktuek dituzten osagaiak jakin ditzakete.

“Mcbaxerri” izena duen Instagram kontuan berriz, web-gunean bezala, eskaintza bereziak ikus ditzakete eta inkesten bidez, hurrengo eguneko menuko postrea aukeratu ahal izango dute.

Gure bezeroekin mugikor bidez jarriko gara harremanetan, lehen aipatutako karteletan agertzen den zenbakira deituz. Instagram bidez harremanetan jartzeko aukera ere izango dute, gure kontura mezu bat bidaliz eta baita baserrira joanez ere. Baserriko helbidea Instagramen, propagandetan eta web-gunean aurkitu daiteke.

Gure kanalak baserrian egoten den pertsona talde batek kontrolatuko ditu eta hauek apuntatuko dituzte baserrian bertan dauden ordenagailuetan jendearen erreserbak, eskatzen den janaria... eskatzen zaien guztia. Guztira hiru kidek osatzen dute taldea. Batek Instagram kontuaren kontrola eta web-gunearena eramaten ditu. Instagramen inkestak egin eta aztertuko ditu, argazkiak igo eta jarraitzaileei gauzez informatu, hau da, beherapen eta eskaintza berezietaz. Web-gunean berriz, Instagram-en bezala eskaintza bereziak eta beherapenak igoko ditu eta menu berezien argazkiak jarriko ditu jendea erakartzeko eta bertan, jendeak bere iritzia idatzi ahal izango du eta orduan langile honek kideekin balorazioa egingo du. Beste pertsona batek, mugikorra kontrolatzen du, hau da, jendearen deiak hartuko ditu eta kuaderno batean hauen erreserba edo eskakizunak apuntatuko ditu. Pentsatzen dugu jendeak gehien erabiliko duena edo errentagarriena erreserbak egiteko telefono zenbakia izango dela baina hala ere, jende askok erabiliko duela

gure Instagram kontua eta web-gunea produktuak ikusteko eta gure baserriari buruzko informazioa lortzeko orain arte jende askok egin duen moduan.

## BANAKETA BIDEAK

Bezeroentzako edo bezeroen segmentuentzako balio-proposamena banatzeko bide nagusiak zein diren jarraian deskribatuko ditugu.

Hasteko, gure enpresa jatetxe bat denez, gure zerbitzu eta produktuak bertan bakarrik lor daitezke, hau da, ez dugu janaria etxera eramateko zerbitzua eskaintzen. Gure baserri itxurako jatetxera iristeko hainbat aukera daude; nahi dutenek oinez edo bizikletaz etortzeko aukera dute, badagoelako oinezkoentzako, zein bizikletentzako lur egokia herritik “McBaxerri”-raino. Baina hala ere, ohikoena autoz etortzea da, herritik urrun dagoelako eta errepidea egokia izateaz gain, gure baserriak parking-a duelako. Gainera, komunikazio egokia duelako N-1 autobidearekin.

Bertara iristean, jatetxera sartu eta salmahai batekin topatuko dira. Han, gure enpresako hiru langile egongo dira haien zerbitzuan. Hau da, batetik, beren eskaria Internetetik egiten badute hori jaso ahal izango dute eta bestetik, eskaria bertan egiteko aukera ere izango dute.

Eskaria eskatzerako garaian, bertan jan edo eramateko den galdetuko zaie bezeroei, hau da, bertan jateko aukera ere izango dutela. Hauek eramateko eskatzen badute, modu desberdinean bilduta jasoko dute hauen eskaria, eta bertan jateko eskatzen badute berriz, plateretan emango zaie.